



Larri gaisotuta dauden presoak eta kondena beteta dutenak askatzeko aldarrikatu dute

AMNISTIAREN Aldeko Mugimenduak eta Etxeratak prentsaurrekoa eman zuten ostiralean, euskal presoek eta bereziki Hernaniko preso eta senideek bizi duten egoera salatzeke. Horrekin batera urtarrilaren 3an Bilbon izango den nazio manifestaziora joateko deia luzatu zuten./2

Buruntzaldeko pelotaren jaialdia izango da gaur, baita Hernanin ere

BURUNTZALDEKO sei herrietako frontoiak pelotariz beteko dira gaur goizean, eskualde mailako pelota jaialdia izango baita Buruntzape teknifikazio taldeak antolatuta. Eguerdian bazkaria egingo dute Hernaniko sagardotegi batean, eta 17:00etan, profesional mailako partidu ikusgarriak jokatuko dira kiroldegian./3

◆ EHIZA

Iñaki Loyartek irabazi du txakur eta guztiko ehiza txapelketa

Txantxangorri elkarteak antolatuta, txakur eta guztiko ehiza txapelketa izan da abenduan, bi jardunalditan. Irabazlea Iñaki Loyarte izan da, 1.246 punturekin. Bigarren postua Gerardo Berazarentzat izan da eta hirugarrena Juan Maria Ugaldereztzat./3

◆ FUTBOLA

Gorengoen mailan Hernanik 2 eta 0 galdu du Pasajesen kontra

Hernanik atzo galdu egin zuen irabaztea merezi zuen partidua. Joko ona erakutsi zuten txuri berdeek eta golerako aukera bat baino gehiago izan zituzten. Hala ere, 2 eta 0 galdu zuten Pasajesen kontra. Bestalde, asteazkenean, Labaien torneoa jokatuko da Zubipen./3



Atsegindegi haur parke bihurtu zen atzo

SORPRESA ederra izan zen atzo herriko haurrentzat Atsegindegi puzgarri erraldoiez, kotxez eta mota guztietako jostailuz beteta ikustea. Askok pentsatu gabe zapatak kendu eta batetik bestera saltoka ibili ziren herriko haur eta gaztetxoak. Neguko hotzak arintzeko eta arratsalde pasa egiteko plan ona, dudarik gabe. ||

GAUR KRONIKAN

Preso eta senideei elkartasuna adieraztearen beharra azpimarratu du AAMk/2

Kirolak /3

Osiñagako mus txapelketa eta Gabonetako saskia /6

Santo Tomasetako errifa /6

Agenda /7

Goiz Eguzki abesbatza /8

Parrokiko abesbatza /8

JANTZI DENDA
AMBOTO
LURTIARRIAREN 5AN
ATEAK ITXIKO DITUGU
ESKERRIK ASKO GUGAN KONFIDANTZA JARRI
ETA BEZERO IZAN ZARETEN GUZTIEI.
Maquicia 43 Amboto Jantzi denda Hernani

ARALAR
TABERNA
GIRO EDERRA
ETOR ZAITEZ
ZAPA KALEA 8
943 33 15 06

Probatu al dituzu gure "errege roskoak"?
zatoz !!
Errege egunerako enkarguak jasotzen ditugu
Kardaberaz 13-16
943 552448
"rosko" eta errege
02

AMNISTIAREN ALDEKO MUGIMENDUA-ETXERAT

«Konpromisoak biltzen jarraituko dugu, gure senideen eta gure eskubideen aldeko konpromisoen bila ariko gara»

Prentsaurrekoa eman zuen ostiralean Amnistiaren Aldeko Mugimendua, gaixo dauden eta kondena beteta duten herriko euskal presoaren egoera salatu eta izango diren mobilizazioen berri emateko.

AMNISTIAREN Aldeko Mugimendua prentsaurrekoa eman zuen ostiral iluntzean, astero presoaren eskubideen alde egiten duten kontzentrazioaren ondoren. Prentsaurrekoan beren errealitatearen berri eman nahi izan zuten eta horrekin batera eskatu zuten «preso dauden gaixo larrien eta kondena beteta duten herritarren askatasuna».

Herriko presoaren egoera

Amnistiaren Aldeko Mugimendua azaldu duenez hiru herritarrek dituzte kondena beteta «eta hori dela eta kalean egon behar dute. Pako Lujanbio, Baldo eta azken hilabeteetan egoera honetan sartu den Inma Noble». Salatu zuten «batzuk errealitate hau ezkutatzeko saiatzeko dira, baina ezin dute ukatu sufrimendu hori existitzen denik».

Konpromisoak eta deialdiak

Prentsaurrekoan adierazi zutenenez, AAMak konpromisoak biltzen jarraitzeko asmoa du «gure eskubideen aldeko kon-

promisoen bila; gu eta gure senideak jasaten ari gara azalduko diegu sindikatuei, eragileei, behar diren ate guztiak joko ditugu. Ez gara inoiz isilik geldituko».

Deialdi bat ere luzatu zuten «denon eskuetan dagoelako euskal preso politikoak bizirik eta betirako etxeratzea. Gaixotasun larriak dituzten gure senideak gure ondoan behar ditugulako». Bide horretan urtarilaren 3an Bilbon izango den nazio manifestaziora joateko deialdia luzatu zuten. Manifestazioa 17:30etan aterako da Bilboko Aita Dostia plazatik.

Gaur Langraitzera

Bestalde, gaur Langraitzera martxa izango da. Autobusa goizeko 09:00etan aterako da Atsegindegitik. Abenduaren 31n, Martutenera martxa egingo dute eta goizeko 11:00etan aterako dira Astigarragatik. Arratsaldean, 19:30etan, enkartelada eta errepresaliatuen aldeko brindisa egingo dute, Plazan. ■



Ostiralean emandako prentsaurrekoa.

AAM: «Elkartasun hitza ezagutzen dugu, eman diezaiozun bizia»

Hernaniko Amnistiaren Aldeko Mugimendua elkartasunaren premia azpimarratu du idatzi baten bidez.

ELKARTASUNAREN beharra azpimarratu nahi izan du Hernaniko Amnistiaren Aldeko Mugimendua, prentsa bidalitako idatzi batean. Falta diren hutsunea Gabonetan bereziki nabaritzen dela azpimarratu dute: «Gabonak familia eta lagunekin egoteko garaia izan ohi da. Aurten ordea gure artean nabaria izango da euskal preso politikoaren eta iheslarien falta, urrun

eraman dituzten herriko semeen hutsunea».

Testuinguru honetan elkartasunaren premia azpimarratu du AAMk, «idatzitako hitz hauek elkartasunaren garrantzia ikustarazteko oihu bat dira; dispersio ilegal eta kriminalek etxetik ahal bezain urrutien bidaltzen dituzten gure herrikideak eta lagunak, eta beren inguruan, astebururo, mugitzen dira familia eta

lagunak. Guztiei elkartasuna adieraztea garrantzitsua da».

«Errepresio ekonomikoa»

AAMk azaldu duenez «estatuek gaur egun Euskal Herria, euskal preso politikoak eta bere ingurukoak itozteko erabiltzen dituzten errepresio modu ezberdinen artean garrantzitsuenetakoa, errepresio ekonomikoa da: fidantzak, isunak eta dispersioak supo-

satzen dituen gastuak». Adibide bat ere jarri dute, «idea bat egiteko Hernaniko preso politikoaren sostengua urtero 30.000 eurokoa da, zenbaki boroiletan, honi gehitu behar zaio astebururo urruneko kartzelara bisitan joaten diren kontaezineko gastuak».

Elkartasunak jarraipen bat izan behar duela azpimarratu dute, baita ere, «estatu espainiar eta frantsesak inposatuko kondena ilegal hauei

aurre egiteko, elkartasuna ezinbestekoa da, baina garrantzitsuena elkartasun honek jarraipen bat izatea da, egun seinalatuetatik aparte, egunerokotasunera eramatea».

Bukatzeko, elkartasuna «borroka tresna» dela adierazi dute, «bideratzeko bideak badaude, erabili ditzagun, elkartasun hitza ezagutzen dugu, eman diezaiozun bizia. Lagundu!». ■

Hernaniko Udalak, aldiro beharrik beharrik APARAZDORRE LAN-POLITSA BAT SORTZEKO HAITAKETA PROZESUAREN deia egiten du Ondoren adierazten dira laboria deialdiaren berezitasunak:

IZANGAIK DUTENAKO DEIAZTAK:

- a) Europar Batasuneko kale diren estatututako baten herriotasuna izatea, edo, Europar Batasunetik egindako edo Fagorinik Fagorik berretsitako Nazioarteko Itunari jarraituz, langileen zirkulazio aske aplikatzen zaien estatututako baten herriotasuna izatea.
- b) 16 urte betetsi izatea
- c) Aparazadore-Ardileketa teknika titulua edukitzea
- d) Funtzioak 3. Hiritarrei Fagorin edo Fagorinaren bidez
- e) Lanpostuaren berezko egitekoak normaltasunaz burutzea gata ez duen gaitasunarekin edo beste baliokideen politikarekin ez izatea
- f) Diru-iruztearen bidez izango Administrazio Publikoaren heziketa-territorioa ez izatea edota egiteko publikoaren antzeko egiteko ez izatea
- g) Izendatutako pertsona bati, lanpostuaren jabe egiteko egunerako abenduaren 28ko 13/1984 Legeak ezarritakoak jarraituz jarraitzea ez burutzea.

Aparazadore-Ardileketa dokumentuaren ezaugarriak:

- Interesdunak haitaketa prozeduraren parte hartzeak eskatuz, buruzkariak iruztearen bidez bidera Alkatari zuzenduta aurkitu behar du.
- Aurkeztu behar duen eguna, 2008ko urriaren 15, egundako 18:00etan.
- Lokai: Udako Emagister Nagusian.

Itzulpen prozeduraren oniam arautzailek lotu ahal izango dira udal Emagister Nagusian, bere web orrian (www.hernani.net) CUPuzko Aparazadoreen Elkargoan.

Hernaniko Udala ALKATEA

MAC'S KEBAB

KEBAB, OLIASKIDA, PÜRÜM (KEBAP), PIZZAK, ENTZALADAK, FALAFEL eta HAINBAT PLATERA

Bertan jai edota Ekara eramaitako

Asteleheneratik igandera, 14:00etatik 01:00tera

Lamendil 17. behe Tel.: 655 40 58 69

◆ PELOTA-BURUNTZALDEKO PELOTA JAIALDIA GAUR

Pelotari gazteak eta profesionalak, denak bat, gaur Buruntzaldeko pelota jaialdian



Buruntzaldeko sei herrietan pelota eskoletako partiduak jokatuko dira, goizean; eta arratsaldean profesional mailako partiduak jokatuko dira Hernaniko kiroldegian.

BURUNTZALDEKO pelotari eta pelotazaleek zita garrantzitsua dute gaur. Buruntzape teknifikazio taldeak antolatuta, eta pelota eskolek eta Udalek lagunduta, pelota jaialdi haundia izango baita. Goizean pelota klubetako pelotariak, guztira 500 batek, pelota partiduak jokatuko dituzte Buruntzaldeko sei herrietan. Goizeko 10:00etatik aurrera ariko dira: Hernanin

infantilak, Andoainen benjaminak, Usurbilen jubnilak, Urnietan seniorrak, Astigarragan kadeteak eta Lasarten alebinak

Eguerdian, 14:00ak aldera, Otsua-enea sagardotegira joateko asmoa dute, bazkaltzera.

Pelota partidu ikusgarriak
Arratsaldean, 17:00etan hasita, profesional mailako pelota partiduak jokatuko

dira Hernaniko kiroldegian. Lehendabizikoan, Saralegi eta Oteizak jokatuko dute Aratz Mendizabal eta Argoteren kontra. Bigarrenengoan, Oier Mendizabal eta Aimar Olaizolak jokatuko dute Berasaluze VIII eta Belokiren kontra.

Sarrerak salgai izango dira frontoian bertan: 15 eurotan partidua zutik ikusteko; eta 30 eurotan eserita ikusteko. ||

◆ EHIZA

Iñaki Loyarte izan da onena, txakur eta guztiko ehiza txapelketan

Txapelketa hilaren 14an eta 21ean jokatu da, bitiralditan, eta 21 ehiztarik hartu dute parte.

TXANTXANGORRI elkarteak antolatuta XXX. Txakur eta guztiko ehiza txapelketa jokatu da, hilaren 14an eta 21an.

Txapelketan, guztira, 21 ehiztarik hartu zuten parte, eta horien artean onena Iñaki Loyarte izan da, 1.246 puntu lortuta. Bigarren postuan, Gerardo Beraza geratu da 1.118 punturekin, eta hirugarren postuan berriz, Juan Maria Ugalde, 1.112 punturekin.

28 faisai eta 75 eper

Bi egunak gehituta, 28 faisai eta 75 eper ehizatu dituzte guztira. Ehizatutako faisai kopurua berdina izan zen bi egunetan, 14 alegia. Eperrak berriz, lehenengo egunean 35 ehizatu zituzten eta bigarrenengoan berriz, 40. ||

Partehartzaileak	Puntuak guztira
Iñaki Loyarte	1246
Gerardo Beraza	1118
Juan Maria Ugalde	1112
Peio Goreostegi	910
Iñaki Mendizabal	812
Jose Antonio Aranjuelo	808
Jose Miguel Costas	612
Juan Antonio Beraza	612
Mikel Loidi	510
Juan Martin Otaegui	408
Cristobal Barragan	306
Jabier Oscoz	306
Jose M ^a San Sebastian	306
Juan Mauricio Lopez	306
Juan Pedro Yeregui	304
Emilio Crespo	302
Iñaki Esnal	202
Jose Fco. Tejada	202
Ibon Dominguez	100
Iñigo Diez	0
Jose Manuel Loinaz	0

◆ FUTBOLA-Gorengoen maila

Ondo jokatu arren saririk ez zuen lortu atzo Hernanik Pasaian

Hernanik 2 eta 0 galdu zuen atzo Pasajesen kontra jokatutako partiduan. Taldeko arduradunek azaldu dutenez, «harrigarria badirudi ere Hernanik aurten jokatu duen partidu txukunenetakoa izan da, joko ona erakutsi dugu eta erasoan izan gara partidua zati haundi batean». Ondo jokatu arren, saririk jaso ez dutela ere aipatu dute eta pena izan dela azpimarratu dute. ||

Labaien torneoa urte zahar egunean

Bestalde, asteazkenean Labaien torneoa jokatuko da Zubipen. Hiru partidu jokatuko dira: 16:00etan, CD. Hernani-Kostkas; 17:00etan, Kostkas-Real Sociedad; eta 18:00etan, CD. Hernani-Real Sociedad. Partidu bakoitza 45 minutukoa izango da. ||

◆ PELOTA

Trinketeko partiduak jokatuko dituzte gaur Hernaniko pelotariak

Trinketean, partiduak jokatuko dituzte gaur Hernaniko pelotariak. Kadete mailan, Iruran, Julen Etxenik eta Jon Etxegoienek jokatuko dute, aurrenak Alde Zaharren kontra eta bigarrenak Oiarperen kontra. 09:30etan, hasita. Senior mailan, Bisintxo Bilbao eta Eñaut Esnaolak jokatuko dute, Irunen, lehenengoak Usurbilen kontra eta bigarrenak Behar Zanaren kontra. 09:30etan hasita, baita ere. ||

biokbi

optika

oso berezia den opariaren bila bazabiltza, zatoz gurera!

ERABILU EZAZU BERRIAK TXARTELA

Alejandra Alcibar

Antziola, 14 - Tel.: 943 33 68 86

Online: Online@biokbi.com | 12.211.010 | P.P.S. 174/08

YOLANDA

estética zenitua

Fotodepilazio berria
Gaztatu tratamendua Argi bidez
Antiakne tratamendua
Azal mantsoak
Plataforma bibratzailak

ZORIONAK
eta
URTE BERRI ON !!

Prezio egokituak eta pertsonalizatuak

estética@yolanda.infonegocio.com | ATZETA 2. bulego. Tfno: 913 55 32 78

Krisiaren eraginez ez da behar adina udaltzain ordaintzeko dirurik izango aurtengo txotx denboraldian. Horren aurrean, egitasmo berritzaile bat jarriko da martxan, eta herritarren inplikazioa ezinbestekoa izango da. Ikastaro bat antolatuko da,

eta parte hartzen dutenek udaltzainen laguntza taldeetan aritzeko aukera izango dute. Ikastaroan ikasiko dute sagardo denboraldiko tentsio momentuak kudeatzen, eta autoritatea ere izango dute, behar bezala ez dabilena zigortzeko.

'HERNANI ZAINTEA DENON ESKU' EGITASMOA

Herritarrek behar bezala ez dabilena zigortzeko autoritatea izango dute, txotx denboraldian

Ekhi Zubiria Etxeberria

GAINEAN dugu sagardotegi sasoia, eta urtero bezela, hernaniar guztiak prestatzen ari gara horretarako: sagardoza-leak batetik, bizi dugun krisi ekonomikoak kontsumoan zein eragin izango duen kalkulatu nahian dabilta. Inoiz baino sagar gehiago omen dago aurten, eta inoiz baino zalantza gehiago ere bai. Tabernariak ere beren kalkuluak egiten ari dira, sagardotegira joan aurreko edota ondorengo poteoa beste urtetan bezelakoa izango ote den pentsatzen.

Eta gero, noski, herritarrek dauzkagu, batez ere Kaxkoan bizi direnak. Urtero izaten baitira sagardotegietatik euforiko, sudurra gorri-gorri eta lotsa kupeltegian ahaztuta herriko Kaxkora datozen taldeak. Herrikoak zein kanpokoak. Zaharrak zein gazteak. Itxuroso jantzitakoak edo Tolosako inauterietako disfrazarekin datozenak. Seguru herritarren gehiengoak ikusi edo bizitu duela halako egoeraren bat.

Aurten udaltzain gutxiago

Liskarrak edo tentsio momentuak ez gertatzeko eta baretzeko lanetan aritzen dira udaltzainak. Propio, Hernanin sortzen den jende masifikazioagatik, plantila handitzen dute garai honetan. Baina aurten badago arazo bat: krisi ekonomikoa. Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak udalteeetara bideratutako diru partida murriztu dute. Horrek esan nahi du, aurten Udalak ez duela gastu guztiak egiteko adina diru edukiko, eta udaltzaingo kopurua ezingo duela handitu sagardo denboraldirako.



Sagardotegik herrira joatean, lasaixeago ibili beharko da datorren txotx denboraldian. (Artxiboko argazkia).

Laguntza taldeak

Gauzak horrela, asunto hau konpontzeko bide bakarra ikusi du udaletxeak: munizipalei herritarrez osatutako

laguntza-taldeak jartzea. Proiektu berritzaile honek *Hernani Zaintzea Denon Esku* izena du, eta Euskal Herrian lehenago inoiz ikusi ez den

proiektua da. Udaletxetik esan digutenez, «krisi ekonomikoak behartuta hartutako erabakia da, denok bizi dugu egoera hau, eta herriak

dituen arazoak denon inplikazioarekin konpondu behar ditugu».

Herritarrez osatutako laguntza-talde hauen helburua da udaltzainei kobertura ematea, udaltzainei lana erraztea. Adibidez, tabernetako liskarrak baretu, 24 orduz piztuta dauden janari makinak zaindu, kalean pixa egiten ari direnak zigortu, mozkorregi daudenei (koma etilikoak) lagundu, edota beste mila gauza txiki. Hori egiten ikasteko, ikastaro bat jasoko dute.

Laguntza taldeen ezaugarriak

Proiektuaren nondik norakoak hobeto ulertzeko, hona hemen laguntza-taldeen ezaugarri batzuk:

-Taldeak osatzeko 18 eta 45 urte bitarteko jendea erabiliko da. Zaharragoak ez dira hartuko betebeharrak batzuk egiteko zailtasunak izan ditzaketelako, eta gazteagoak ere ez, adin txikikorik onartu ezin delako.

-Laguntza-taldeetan sartu nahi duten boluntarioek (Hernanikoak ez direnak ere apuntatu daitezke) udaltzaingoan aurkeztu dezakete beren burua gaurtik aurrera. Bolondresekin nahikoa jende lortzen ez bada, hernaniar guztion artean zozketaz au-

Herritarrek prestatzeko ikastaro berritzailea

HERRITARREK jasoko duten ikastaro berritzaile honek honako ezaugarriak izango ditu:

- 15 orduko ikastaroa. Udaltzaingoak emango du bere egoitzan. Horietatik bost ordu praktikak egiteko erabiliko dira, kiroldegian.

- Praktiketan oinarrituko sorospen teknikak edota pertsonen inmobilizatzeko teknikak erakutsiko dira. Azken hauek erakusteko herritar guztiontzat ezaguna den Julen Madina kontratatu du Udaltzaingoak.

- Ikastaroa burutzen dutenek Hernaniko Zaintzaile-Laguntzaile plaka, bra-

zaletea eta txilibitua jasoko dute. Hiru gauza hauek behar-beharrezkoak izango zaizkie gaueko turnoetarako.

- Agresiboak izan daitezkeen pertsonen test psikotekniko bat egingo zaie, eta gainditzen ez badute ez dute laguntzaile plaka jasoko.

keratuko dira falta direnak.
-Guztira 40 pertsona behar dira. Bost pertsonako ekipoak izango dira (8 talde). Gutxi gora behera, ekipo bakoitzari hilean behin tokatuko zaio turno bat egitea.
-Turno bakoitza lau ordukoa izango da, ostiral edo larunbat gauetan, gaueko

01:00etatik goizaldeko 05:00ak arte.
-Turno bakoitzarengatik laguntzaileek hurrengo asteburuan nahi duen sagardotegian menu bat doan jasoko dute.
-Ikastaroa, noski, doakoa izango da.

Herritarrek autoritatea
Beti, edozein ekintza burutu aurretik, laguntza-taldeko ki-deek beren plaka edo karneta erakutsi beharko dute. Brazaletara ere turno osoan zehar jendeak ikusteko moduan eraman beharko dute. Laguntza-taldeek autoritatea izango dute honetarako, bes-


teak beste:
-Pixa kalean edo portal batean egiten ari dena kala-bozora eramateko.
-Mozorro susmagarriak dituztenei identifikazioa eskatzeko.
-Tabernariak eskatzen badio, tabernatik jendea botatzen laguntzeko.

-Muturreko kasuetan, esate baterako, kalean pixa egiten behin baino gehiagotan harrapatuz gero, sagardotegietara joatea debekatzeko. Muturreko kasu hauetan inplikaturakoei espedientea irekiko zaie eta sagardotegietan beren izenak jarriko dira, argazkiarekin. ■

EUSEBIO LIZARAZU - Udaltzainburu ordea.

«Kanpokoei erakutsi behar diegu beren herrietan egiten ez dutena Hernanin ez egiten»

Hernani Zaintzea
Denon Esku
proiektuaren berri jakin bezain laster, Hernaniko Kronika Eusebio Lizarazu udaltzainburu ordearekin elkartu da, aurreko urteetan izan den panoramari buruz eta udaltzainek egiten duten lanari buruz hitz egiteko.



Eusebio Lizarazu bere bulegoan.

Azken urteotan bronka eta istilu batzuk egon izan dira sagardotegi garaian. Noiz hasi zen joera hau?
Bronkak beti egon dira. Kontua da, jende kopurua handitzen joan den bezela, bronkak ere ugari egin direla. Azken urteetan egoera larritu egin dela esan genezake.
Duela 15 bat urte, sagardotegiak hasi zirenean, ez zen horrelako liskarrik egoten, eta jende asko egoten zen. Orain badirudi edatearen kultura hori sartu dela.

Zeinen arteko bronkak izan ohi dira?
Bi modutakoak izaten dira normalean. Batetik, herritarren batek kargu hartzen dio-

nean norbaiti eta talde bati (kalean pixa egiten ari delako, lorontzi batetik lorea atera duelako edota beste zerbaitengatik) eta horren ondorioz liskar bat sortzen denean. Eta bestea da, kanpoko bi koadrila ezberdinen artean, normalean elkar ezagutzen ez dutenak, izaten diren hika-mikak. Azken aipatu ditudanak izan ohi dira konfliktu larrienak. Normalean herriko jendea tartean dagoenean ez dira hainbesteko borrokak izaten.

Aipatu gertatzen diren arazo ohikoak.
Gehienbat puskaketak izaten dira; bai kaleko-altzariena (zakarrontziak, kontenedoreak, arbolak...), bai leku partikularretako gauzena ere

(tabernetako komunak edo komertzioetako kristalak, adibidez).

Istilu eta puskaketen aurrean zein da zuen eginbeharra?
Lehenengo, bronka gelditzea litzake gure lana. Eta gero ikusi beharko zen nork hasi duen iskanbila, nor den erruduna eta abar. Bestalde, zauriak edo kalteak baldin badaude, segun eta zein larritasunekoak diren, pertsona hori atxilotu edo identifikatu beharko dugu, multa jartzeko edo bestelako tramiteren bat bideratzeko.

Salaketa eta multa kopurua ere handitu al da?
Urtetik urtera gehiago izaten dira. Guk, adibidez, joan den

urtean pixa behar ez den tokian egiteagatik multa dezente jarri genituen, 200 eurokoak. Eta trafiko mailan ere estutu dugu asuntoa.
Jende honek ez du ikusi behar Hernanira etorri eta nahi duena egin dezakeenik. Muga batzuk daudela eta horien barruan ibili behar direla erakutsi behar diegu.

Hemendik gutxira hasiko da txotx denboraldia. Aurreko urteetako joera ikusita, zer espero duzu aurten?
Guk uste dugu azken urteetako dinamika izango dela. Hala ere, kontutan hartu behar da krisi egoera baten aurrean gaudela eta horrek jende kopuru aldetik aldaketa batzuk ekarriko dituela.
Argi dago, orain dela urte batzuk jendea denboraldi 4-5 aldiz sagardotegira etortzen zela, eta orain, kanpotik etortzen direnak bidai antolatuetan eta urtean behin etortzen direla.

Zein da herritar baten jarrera egoia arazo hauen aurrean?
Herritar batek horrelako gauzen aurrean egin behar duen lehenengo gauza udaltzainei deitzea da. Askotan, pertsona batek kargu hartzen dio beste bati gauza desegoki bat egiteagatik, adibidez, portal batean pixa egiten ari delako. Kontuan hartuta normalean ordu txikietan izango dela eztabaida, eta pertsona hori mozko-

rra edo beste drogaren bat kontsumituta egongo dela, ez da egokia arazoa bere aldetik konpontzen saiatzea. Azkenean, horrelako eztabaidak borroketan bukatzen baitira.
Beraz, hobe da pertsona hori ondo identifikatu eta guri deitzea. Eta noski, ahal den azkarrena deitzea komeni da, guk bere aurkako neurriak hartzeko.

Zer eskatuko zenieke kaxkoko bizilagunei? Eta tabernarietara?
Kaxkoko bizilagunei zer esango diegu... beraiek dira gehien sufritzen dutenak, ezin diegu ezer eskatu. Bakarrik ulertu dezatela ezin garela toki guztietara iritsi.
Tabernarietara beren betebeharra ondo bete dezatela eskatuko genieke. Hor sartzen da tabernak ixteko ordu-tegiaren kontua batetik, eta bestetik, denboratan eskatzen ari garen gauza bat; kristalezko baso eta botilak erabat kentzea. Azken urteetan ikusi da kristalezko baso eta botilak erabili izan direla bizilagunen etxetara botatzeko, komertzioei botatzeko, edo elkarren artean mehatxatzeko eta borrokatzeko. Orduan, kristala kentzen bada, beste gauzak asko errazten dira.

Eta kanpotik datozenei zer? Beti esaten duguna; beren herrietan egingo ez luketena hemen ere ez egitea. ■

GABONETAN BIDAIAK OPARITU

PARIS (2 GAU) (GOSARIA) UITARRILAK 5etik aurrera HOTEL TIMOTHY MONPARNASSE	219€
VENECIA (2 GAU) (GOSARIA) UITARRILAK 10etik OTSAILAK 12ra HOTEL CARITON GRAN HOTEL	353€
TENERIFE (7 GAU) APIRILAK 11tik 18ra HOTEL LAS DALIAS - MR. ZINCLDU - 10UMC	osotara 1550€
KANTABRIA (2 GAU) HOTEL HUSA TORRESPORT (GOSARIA eta ANTIESTRES ZIRKUITO) 107,70€ HOTEL GOLF PROVINCIAS (MP eta SPA) 162,35€ RUI NFARIO SOL ARRES (GOSARIA eta HIDROPOLIS) 157€	
ASTURIAS (2 GAU) GRAN HOTEL JOVELLANOS (GOSARIA eta SPA) 128,40€ HOTEL DON SILVIO (MP eta SPA) 262,65€	

(prezioak pertsonako dira)

HERNANI BIDAIAK
Herriak, R 849 33 00 49
hernani@herbilid.com
www.hernanibidaia.com

TRANBIA TABERNA

Probatu al dituzu gure KAXUELAK?

KARAKOTAK	AJOARTEGA	TERRI BARRAK
TATPATAK	TSATSA	ALBONDIGAK
GUTZURRUNAK	MUTURAK	IGEL BARRAK

EGIUNKO MENUA
BAZKARI ETA AFARIETAKO ERRESERBAK
JANARI GUZTIA ERAMATEKO AUKERA

TFNOA: 849 33 00 49
MARIELITZ GALEA, 2 - HERNANI
ASTELEHEN ITZUTA



Modesto Etxeberria eta Patxi Aranburu musean txapeldun, Osiñagan

Osiñagako mus txapelketa azkarreko aurtengo sarituak Modesto Etxeberria eta Patxi Aranburu izan dira eta bi txerrikume eder irabazi dituzte, argazkian ikusten den bezala. Bigarrenak, Jesus Navascues eta Fernando Iturralde izan dira, argazkian urdaiazpikoarekin daudenak. Hirugarrenak, Jon Mari Beasain eta Iñaki Otegi izan dira eta arkume eder bat irabazi dute. Laugarrenak, Simon Goikoetxea eta Joseba Mariezkurrena izan dira eta saritan txuleta ederrak eraman dituzte. Bestalde, Osiñagako Gabonetako saskia Errotaran baserriko Pedro Ugalde eta Kontxi Alberdik irabazi dute. ||



Maria Pilar Aldasorok irabazi du Plaza Berriko Santo Tomasetako errifa. Santo Tomasetan jaialdia antolatu du aurtengoa ere San Joan Konpartsak, Plaza Berrin. Zozketa ere egiten dute, eta aurtengoa, Maria Pilar Aldasorok irabazi du. Saria, goiko argazkiko txerria, edo aukeran, dirua izan da. Ezkerreko argazkian Maria Pilar eta San Joan Konpartsako kideak. ||



ANTZIOLA, 12 943 576115 **HERNANI** NAGUSIA, 17 943 334022

BALANTXA




-%3 **WEEKEND BERRIAK**



NESPRESSO KRUPS ESSENZA AUTOMATIKOA
159 € - 50€-ko TXEKEA OPARI

NESPRESSO KRUPS ESSENZA MANUALA
129 € - 50€-ko TXEKEA OPARI



Gaur George Clooney autografoak sinatzen izango da gure dandatan

12.00etatik 12.30etara Antziola 12an.
12.45etatik 13.15etara Nagusia 17an

Zatoz eta har ezazu kalitate bati Clooneyekin!!

PREZIO HOBERENAK

MERKEAGO AURKITZEN BADUZU PREZIO HORRETAN SALDUKO DIZUGU



Rafafa magoaren emanaldia Portu auzoan. Gabonetako oporraldietan ez dira aspertzen ari Portu aldean, auzo elkarteak antolatuta, ekintzak antolatzen ari baitira haur eta helduentzat. Ostiralean Rafafa magoarekin hasi ziren Gabonen bueltako ekintzekin eta astelehenean jarraituko dute Jaxonelaf malabaristen tailerrarekin. Parte hartzera animatuz gero, arratsaldeko 18:00etan egin dute hitzordua, Portuko auzo elkartearen. ||

X Asteko agenda

ABENDUAK 29, astelehena:

- **Haur txokoa:** Iturritxo auzo elkarteak antolatuta jolasak eta eskulanak izango dira 6-12 urte arteko haurrentzat. 10:30etatik 13:00etaera, auzo elkartearen lokalean (Latsunbe Berrin).
- **Malabar tailerra:** Jaxonelaf malabaristen tailerra, Portuko auzo elkarteak antolatuta, arratsaldeko 18:00etan, auzo elkartearen lokalean.
- **Antzerkia:** *Galtzagorriak* antzezlan, Txotxongillo taldearen eskutik. 17:00etan, Biterin.

ABENDUAK 30, asteartea:

- **Haur txokoa:** Iturritxo auzo elkarteak antolatuta jolasak eta eskulanak izango dira 6-12 urte arteko haurrentzat. 10:30etatik 13:00etaera, auzo elkartearen lokalean (Latsunbe Berrin).
- **Errealari buruzko tertulia:** Portuko auzo elkarteak antolatuta, arratsaldeko 19:30etan, auzo elkartearen lokalean.
- **Astigarraga:** Haurrentzat jolasak: tren txikia, pedaldun ibilgailuak. Arratsaldean. J. Barandiaran plazan.

ABENDUAK 31, asteazkena:

- **Urte zaharreko erronda:** 17:15ak aldera abiatuko dira Plazatik. Zaharren Egoitzan kantu saioa egin ondoren, 18:00etatik aurrera, Kaxkoan barrena ibiliko dira. herrian barrena ibiliko dira kantari.
- **Gazte Asanblada:** mus txapelketa arratsaldean, Gaztetxean.

URTARRILAK 1, osteguna:

- **Gazte Asanblada:** urteroko kazerolada 01:00etan. Goizaldean, 07:00ak aldera, euskal kantu kalejira egingo dute eta segidan salda hartuko dute Gaztetxean.

URTARRILAK 2, ostirala:

- **Abesbatza kontzertua:** Italiako Libera Cantoria Pisani abesbatzaren kontzertua, Kantuz abesbatzak antolatuta. 19:30etan, Milagrosan.
- **Joko tailerra eta merendola:** Portuko auzo elkarteak antolatuta, arratsaldeko 17:30etan, auzo elkartearen lokalean.

URTARRILAK 3, larunbata:

- **Bertsolata:** Bertso bazkaria Unai Iturriaga, Unai Agirre, Maialen Lujanbio eta Iker Osarekin. Trama jartzean: Eñaut Agirre. Musikariak: Aitor Atxega eta Imanol Kamio. Eguerdiko 14:00etan, Errioguardan. Sarrerak salgai, Aralar eta Tripontzi tabernetan.

Joxean-Tomas eta Mikel-Mikel tutean onenak Karobi elkartearen urteurreneko afaria egin dute abenduan eta afalostean tute txapelketako sariak banatu zituzten. Aurtengoan, aurrenekoak, Joxean eta Tomas izan dira eta saria Cafes Aitonaren eskutik jaso dute. Bigarrenak, Mikel eta Mikel izan dira eta Elkano Loteria estankoaren eskutik jaso dute saria. Bestalde, ostiralean, haurrentzako festa egin zuten Karobin eta bertan eskulan pillak egin zituzten. ||



ERAKUSKETA BERRIA

ARISTREGI Sukaldeak

SUKALDE ETA KOMUNEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
ELEKTROGAILUAK
MAHAI ETA AULKIAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA



Urte berri on guztioi!!!

ERAKUSKETA:

Perkaltegi 10W
Antziola
HERNANI
☎ 943 55 06 88



LANTEGIA:

I. Irujoa 6/6,
1. solairua,
25 B. Irujoa
HERNANI



Aristregi Sukaldeak 30 urte diaramazki Hernanin altzariak egiten. Orain denda berria zabaltzen du eta bertan, sukaldeko altzariak gain, komuneko altzariak, armarri enpotratuak, elektrogailuak... aurkituko dituzue. Antziola auzoko Perkaltegi kalea 10w zenbakian.

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● DYA: 943 464622 ● Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● Anbulatorioa: 943 006666 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
✚ **FARMAZIAK** ● Egunez: Chucla Kardaberaz 48 - 943 551793 ● Gauz: Correa Perkaiztegi 8 - 943 336022

EGURALDIA **GAUR** Eguraldiak hobetzeko joerarekin jarraituko du. Ez du euririk egingo eta kostaldetik gertu ostarte zabalak izango dira. Maximoak: 13 °C; minimoak: 6 °C.

BIHAR Astelehenean euria botako du. Arratsaldean altxerak egingo du eta ostarteak ikusiko dira. Maximoak: 12 °C; minimoak: 8 °C.

(euskalet)



Parrokiko abesbatza Agustinetan. Parrokiko koruak Gabon bezperako kontzertua eskaini zuen Agustinetan, urteroko ohiturari jarraituta. Famili giroan egiten duten kontzertua izaten da, Agustinetako monjek asko estimatzen dutena. (Argazkia: Lauri) ||

Zaharren egoitza girotu du Goiz Eguzkiko abesbatzak. Gabonen bueltan ekintza ezberdinak antolatu dituzte Zaharren Egoitzan. Aste honetan Goiz Eguzki abesbatzak girotu du egoitza Gabonetako abesti emanaldiarekin. Bihar tokan ariko dira, 17:30etatik aurrera. ||



❖ MOLOTOFF IRRATIA (91.8 FM) 'Inverted Cinematic' talde alemaniarraren diskografia osoa entzuteko aukera

Molotoff Irratian gaur *Sesion Continua* irratsaioa izango da eta bertan *Inverted Cinematic* talde alemaniarraren diskografia osoa aurkeztuko dute. Lau orduko saioa izango da eta taldearen disko eta maxiak jarriko dituzte. Gaur 21:00etan hasita. ||



LARRAITZ

ZORIONAK

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Etxe berria estrenatu ezazu, hemendik 18 hilabetera, 2 logela, aszensora, 60m² (249.000euro). Deitu: 671 124 594.

Etxeko konponketak egiten dira: iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).

Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P-1 B).

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, prezio egokituak eta pertsonalizatuak. Gaztetzeko tratamendua "Fotorejuvenecimiento", Antiacne tratamendua, "Manchas". Plataforma bibratzailea. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafoterapia, kiropraxia, erreflejo justea eta berterala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Iniigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berterala, reflexologia, auriculoterapia... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Amegar

etxe tresnak - altzariak

50 urte
1958-2008

ZOZKETA

2008an erosketa egin duten bezero guztien artean (altzari edo etxe tresnak) urte amaieran LCD 32" TB MODERNOA zozketatuko dugu.

Zorte on!

Txirrila kalea, 13-15
Tel.: 943 55 11 25 - Faxa: 943 55 16 03



HDMI x3 **HD ready**
32LG3000 **499€**

37LG2000 **689€**

DECORactiva

ACTIVA

RENOVE PLANA
ELEKTROGAILUETAN



Erabili ezazu BERRIAK txartela



599€
-105€ renove

Urte berri on!!

494€